



467/2017 Foru Agindua, azaroaren 7koa, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituenak.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru agindu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru aginduaren zenbat eduki aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

Ekainaren 27ko 15/2017 Foru Dekretuak, zeinaren bidez aldatzen baitira zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen erregelamendua eta fakturatzeko obligazioak arautzen dituen erregelamendua, ezartzen du balio erantsiaren gaineko zergaren zenbait zergadunek, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eraman beharko dituztela Gipuzkoako Lurralde Historikoan, zerga horri dagozkion erregistro liburuak, fakturazio erregistroak bide elektronikoz bidaliz.

Aldaketa horren ondorioz, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, honela dio orain 36. artikularen 5. apartatuan:

«Artikulu honetako aurreko apartatueta xedatutakoa gorabehera, balio erantsiaren gaineko zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 62. artikuluan aipatzen dituen erregistro liburuak eramateko obligazioa eta fakturazio erregistroak elektronikoki bidaltzeko enpresaburu edo profesionalek edo zergaren beste subjektu pasibo batzuek bete beharko dute baldin eta likidazio aldia hilabete naturalarekin bat badator aipatutako erregelamenduak 71. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Gainera, aurreko paragrafoan aipatu ez diren enpresaburu edo profesionalek eta zergaren beste subjektu pasibo batzuek beti aukeratu ahal izango dute, erregelamendu honen 36 bis artikuluan ezarritakoari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eramatea erregistro liburuak, hain zuzen ere, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 40. artikularen 1.



apartatuan, 47. artikulua 2. apartatuan, 61. artikulua 2. apartatuan, eta 62. artikulua 1. apartatuan aipatutakoak.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 62. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, erregistro liburu bakarrak eraman beharko dira, eta haietan zergaren aplikazio eremuan kokatuta dauden establezimendu guztien eragiketak jasoko dira.

Fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez egingo da, web zerbitzu bat erabiliz edo, egonez gero, formulario elektronikoa bat betez, hori guztia Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru aginduz onartutako erregistro eremuen arabera.

Balio erantsiaren gaineko zergaren erregelamenduan erregelamendu horretako 62.6 artikuluan aipatzen diren pertsona eta entitateei egindako erreferentziak apartatu honetan aipatzen diren pertsona eta entitateei egindakotzat joko dira, eta erregistro liburuak Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren egoitza elektronikoaren bitartez eramateari buruzko erreferentziak, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateari buruzkoak direla ulertuko da.»

36. artikuluko 5. apartatu horretan aurreikusitako garapena betetzearren, bidezkoa da onartzea balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eramateko jarraitu beharreko zehaztapen tekniko eta arauemaileak.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramatera behartuak.

Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 36. artikulua 5. apartatuan aipatzen dituen enpresaburuak edo profesionalak eta zergaren gainerako subjektu pasiboak daude behartuta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eramatera balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak.

2. artikulua. Egindako fakturen erregistro liburuan eman beharreko informazioaren xedea eta edukia.



1. Abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 63.3 artikuluan aipatzen duen informazio guztia jaso behar da egindako fakturen erregistro liburuan.

2¹. Faktura motak identifikatzeko balio dezaketen bestelako zehaztapenen inguruko informazioari dagokionez –Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 63.3 artikuluko a), d) eta e) letretan ezarritako informazioa da–, zehaztapen hauek ere eman beharko dira, hala behar denean:

a) Faktura egiteko garaian, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio obligazioen Erregelamenduak 6. edo 7. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaion.

Fakturazio obligazioen Erregelamenduak 7. artikularen 2. eta 3. apartatueta jasotakoaren arabera egindako fakturak marka espezifiko batekin identifikatuko dira Erregelamendu bereko 6. artikuluan araututako fakturekin batera.

Fakturazio obligazioen Erregelamenduko 6. artikularen arabera egindako fakturetan hartzaillearen identifikazio fiskaleko zenbakia jartzea ez bada nahitaezkoa aipatutako erregelamenduaren 6.1 artikuluko d) letran ezarritakoaren indarrez, faktura horiek marka espezifiko batekin identifikatuko dira Erregelamendu bereko 7.1 artikuluan araututako fakturekin batera.

b) Egindako faktura faktura zuzentzaile bat den, fakturazio obligazioak arautzen dituen Erregelamenduko 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta zer arrazoi izan den zuzenketa egiteko. Faktura zuzentzaileen kasuan, eta fakturazio erregistro horien bidalketa elektronikorako ez beste ezertarako, faktura zuzentzaileak identifikatzea hautazkoa izango da.

c) Fakturazio erregistroa lehendik egindako faktura sinplifikatuen ordeztu egiten den faktura bati dagokion. Horrelakoetan, eta fakturazio erregistro horien bidalketa elektronikorako ez beste ezertarako, faktura sinplifikatuak identifikatzea hautazkoa izango da.

d) Fakturazio erregistroa fakturen idazpen laburtzaile bati dagokion, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 63.4 artikuluan ezarritako eran.

¹ Apartatu hau 2018ko ekainaren 26ko 324/2018 Foru Aginduaren artikuluko bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Aginduak azaroaren 7ko 467/2017 Foru Agindua, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituen aldatzen du. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2018/06/26ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtariletik aurrerako ondorioak izango ditu.



e) Zer faktura egin dituen hartzaileak edo hirugarren batek fakturazio obligazioak arautzen dituen Erregelamenduak 5. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta, orobat, zer faktura egin dituzten hirugarrenek aipatutako Erregelamenduko bigarren edo bosgarren xedapen gehigarrietan jasotakoari jarraituz edo 2015eko abenduaren 4ko Ebazpenaren III. eranskineko 1.4 apartatuan ezarritakoaren arabera (Ebazpena, Energiaren Estatu Idazkaritzarena, gasaren merkatu antolatua merkatu-arauak, atxikimendu kontratua eta ebazpenak onartzen dituena).

f) Hartzaileak identifikazio fiskaleko zenbakirik ez duenean edo, edukita ere, hura «N» letraz hasten denean, adierazi beharko da zer izaera duen eragiketaren xedeak, eta eragiketa ondasun entrega bat den edo zerbitzu prestazio bat den.

3. Orobat, zerga ondorioak dituen informazio guztia ere eman beharko da, hain zuzen ere, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 41etik 43ra bitarteko artikuluetan aipatzen duen hau:

a) Bidaia agentziek zerbitzu prestazioen kontratazioan esku hartzen dutenean bitartekari moduan eta beste batzuen izenean eta kontura, fakturatzeko obligazioen erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako beharrezkoak betetzen dituzten zerbitzu prestazioen fakturak identifikatu behar dituzte.

b) Negozio-lokalen errentamendu eragiketengatik egindako fakturen identifikazioa. Errentamenduari ez bazaio atxikipenik aplikatzen, informazioa eman beharko da erreferentzia katastralei buruz eta errentan emandako higiezinak lokalizatzeko beharrezkoak diren datuei buruz.

c) Sozietateek, elkarteek, elkargo profesionalek edo bestelako entitateek hirugarrenen kontura egindako kobrantzen identifikazioa, haien eginkizunen artean bazkide, elkartekide edo elkargokideen konturako lansari profesionalak edo jabetza intelektual eta industrialetik, autore eskubideetatik edo bestelakoetatik eratorritako eskubideak kobratzea dagoenean.

d) Higiezinen eskualdaketengatik –egindakoengatik edo egitekoak direnengatik– kontraprestazio gisa jasotzen diren zenbatekoak, balio erantsiaren gaineko zergari lotutako entregak badira.

e) Ekitaldiaren barruan pertsona edo entitate beretik dirutan jasotako 6.000 eurotik gorako zenbatekoak, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 42.1.h) artikuluan ezarritakoaren arabera.

f) Aseguru entitateek aseguru eragiketei buruzko informazioa eman beharko dute, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 40.c), 41.1 eta 41.2.i)



artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta, betiere, artikuluko honen aurreko apartatueta faktura egiten den kasuetarako ezarritakoa eragotzi gabe.

Apartatu honetako e) eta f) letretan aipatutako eragiketei dagokien informazioa urtean behin eman beharko da, ekitaldia amaitu ondorengo urtarilaren lehen 30 egunen barruan, eta informazio horretan taldekatuta jaso beharko da zer pertsona edo entitatekin egin diren eragiketa horiek, zerga betebeharrak jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, egozpen tenporalari buruz 43. artikuluan ezartzen dituen irizpideen arabera.

4. Aurreko apartatueta fakturen kategoriari buruz, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide monei buruz eta zerga ondorioak dituzten eragiketei buruz aipatu den informazioa agindu honen I. eranskinean definitutako gakoaren arabera eman beharko da.

Informazio hori bidaltzeko, foru agindu honen 8. artikuluan aipatzen diren mezu informatikoen formatuari eta diseinuari jarraitu beharko zaie.

3. artikulua. Jasotako fakturen erregistro liburuan eman beharreko informazioaren xedea eta edukia.

1². Abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 63.4 artikuluan aipatzen duen informazio guztia adierazi behar da jasotako fakturen erregistro liburuan. Ondorio horietarako, zehaztapen hauek eman beharko dira, hala dagokionean:

a) Faktura egiteko garaian, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio obligazioen Erregelamenduak 6. edo 7. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaion.

Fakturazio obligazioen Erregelamenduak 7. artikuluen 2. eta 3. apartatueta jasotakoaren arabera egindako fakturak marka espezifiko batekin identifikatuko dira, Erregelamendu bereko 6. artikuluan araututako fakturekin batera.

b) Fakturazio erregistroa fakturen idazpen laburtzaile bati dagokion, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 64.5 artikuluan ezarritako eran.

² Apartatu hau 2018ko ekainaren 26ko 324/2018 Foru Aginduen artikuluko bakarreko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Aginduak azaroaren 7ko 467/2017 Foru Agindua, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituen aldatzen du. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2018/06/26ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtariletik aurrerako ondorioak izango ditu.



c) Inportazioen kasuan, aduanako agiriaren informazioa eman beharko da. Horrelakoetan, adierazi beharko da zer zenbaki duen balio erantsiaren gaineko zerga likidatzen duen aduana agiriak edo, kasua bada, Aduanaren likidazio osagarriak.

d) Zer data duen fakturaren kontabilitate erregistroak, kontabilitateko frogagiriak edo aduana agiriak.

2³. Orobat, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 41.etik 43.era bitarteko artikuluetan aipatzen duen informazioa eman beharko da, eta zehazki, zerga ondorioak dituen informazio hau:

a) Negozio-lokalen errentamendu eragiketengatik jasotako fakturen identifikazioa.

b) Fakturazio obligazioak arautzen dituen Erregelamenduak, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen fakturak egiten dituzten bidaia agentziek hirugarren xedapen gehigarri horren 7.b) apartatuan aipatzen diren zerbitzu prestazioei buruz informatu beharko dute, haietan bitartekari direnean eta besteren izenean eta kontura esku hartzen dutenean.

c) Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 91. artikuluen 1. eta 2. apartatuak aipatzen dituen pertsonak edo entitateek informazioa eman beharko dute jardura enpresarial edo profesionalek kanpo egin dituzten ondasun eta zerbitzu eskurapenei buruz, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 41.3 artikuluan ezarritako terminoetan.

d) Aseguru entitateek, beren aldetik, aseguru eragiketei buruz informatu beharko dute, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 40.c), 41.1 eta 41.2.i) artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta, betiere, artikulua honen aurreko apartatuan fakturak jasotzen diren kasuetarako ezarritakoa eragotzi gabe.

e) Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legea aplikagarri zaien entitateek eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen 20.Hiru artikuluan aipatutako izaera sozialeko entitate edo establezimendu pribatuak, baldin eta berehalako informazio horniduraren sistemaren barruan badaude, informatu

³ Apartatu hau 2021eko urtarrilaren 6ko 1/2021 Foru Aginduaren artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Aginduak azaroaren 7ko 467/2017 Foru Agindua, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituen aldatzen du. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2021/01/13ko GAO) eta aldaketak 2021eko urtariletik aurrerako ondorioak izango ditu.



beharko dute zer ondasun edo zerbitzu eskuratu duten edozein jarduera enpresarial edo profesionaletatik kanpo, abenduaren 17ko 47/2013, Foru Dekretuaz onartutako Zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak 41. artikuluen 5. eta 6. apartatuak jasotakoari jarraituz.

Apartatu honetako b) eta d) letretan aipatutako eragiketei dagokien informazioa urtean behin eman beharko da, ekitaldia amaitu ondorengo urtarilaren lehen 30 egunen barruan, eta informazio horretan taldekatuta jaso beharko da zer pertsona edo entitatekin egin diren eragiketa horiek, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, egozpen tenporalari buruz 43. artikuluan ezartzen dituen irizpideen arabera.

3. Aurreko apartatuak aipatutako fakturei buruz, kontabilitateko frogagiriei buruz, aduana agiriei buruz, balio erantsiaren gainerako zergaren araubideei buruz eta zerga ondorioak dituzten eragiketei buruz informatzeko, foru agindu honen 1. eranskinean definitutako gakoak jarraituko zaie.

Informazio hori bidaltzeko, foru agindu honen 8. artikuluan aipatzen diren mezu informatikoen formatuari eta diseinuari jarraitu beharko zaie.

4. artikulua. Inbertsio ondasunen eta batasun barruko zenbait eragiketaren erregistro liburuak eman beharreko informazioaren xedea eta edukia.

Inbertsio ondasunen eta batasun barruko zenbait eragiketaren erregistro liburuak jaso beharreko edukia Balio Erantsiaren gainerako Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 65. eta 66. artikuluetan ezarritakoa izango da.

Informazio hori bidaltzeko, foru agindu honen 8. artikuluan aipatzen diren mezu informatikoen formatuari eta diseinuari jarraitu beharko zaie.

⁴Abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaz onartutako Balio Erantsiaren gainerako Zergaren Erregelamenduak 66.3 artikuluan jasotakoa garatuz, kontsignako salmenten erregistroen identifikaziorako, kodeketa bat erabili beharko da, erregistro bakoitzaren identifikazio unibokoa eta, hala badagokio, hari lotutako igortze edo jasotzearen erregistroaren identifikazioa bermatzen dituenak.

5. artikulua. Egindako fakturei buruz eman beharreko informazioa fakturak egin direnean fakturazioa sinplifikatzea baimenduta edo Balio Erantsiaren

⁴ Paragrafo hau 2021eko urtarilaren 6ko 1/2021 Foru Aginduen artikulua bakarreko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Aginduak azaroaren 7ko 467/2017 Foru Agindua, balio erantsiaren gainerako zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituenak aldatzen du. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2021/01/13ko GAO) eta aldaketak 2021eko urtariletik aurrerako ondorioak izango ditu.



gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 62.5 artikuluan ezarritako erregistro sistema baimenduak erabilita.

1. Faktura bat egiten bada fakturazioa sinplifikatzeko baimen batez baliatuta, abenduaren 18ko 2402/1985 Errege Dekretuak, apirilaren 21eko 43/1998 Foru Dekretuak, ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, edo fakturazio obligazioak arautzen dituen Erregelamenduak, otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretu bidez onartuak, xedatutakoaren arabera, identifikatu beharko da horrelako baimen batez baliatuta egindako faktura dela. Horrela egindako fakturaren fakturazio erregistroaren lehen igorpena egin baino lehen, dokumentazio osagarria aurkezteko ageri den apartatuan baimenaren kopia erantsi beharko da. Baimena bidaltzean lortzen den erregistro zenbakia baimen horren arabera egindako fakturen fakturazio erregistroetan adierazi beharko da.

2. Zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez eramatera behartutako subjektu pasiboak baimen bat jaso badu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 62.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, identifikatu behar da zer erregistro bidaltzen diren emandako baimen horien babesean. Era horretako fakturazio erregistro bat lehen aldiz igorri baino lehen, dokumentazio osagarria aurkezteko apartatuan baimenaren kopia erantsi beharko da. Baimena bidaltzean lortzen den erregistro zenbakia baimen horren arabera egindako fakturazio erregistroetan adierazi beharko da.

3. Bi kasuotan, foru agindu honen 8. artikuluan aipatzen diren mezu informatikoen formatuari eta diseinuari jarraituz bidaliko da informazioa.

4. Balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasiboak ez badu eraman behar, zerga administrazioak baimendu eta salbuetsi duelako, Balio Erantsiaren gaineko Zerga Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 62.1 artikuluan ezartzen dituen erregistro liburuetakoa bat, ez du izango zertan bidali baimen horren kopia.

6. artikulua. Fakturazio erregistroak elektronikoki bidaltzeko baldintza orokorrak.

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez eramateko, elektronikoki bidali beharko dira erregistro liburu bakoitzean jaso behar diren fakturazio erregistroak.

Fakturazio erregistro horiek erregistro liburuaren titularra den subjektu pasiboak berak bidal ditzake elektronikoki, internet bidezko igorpen telematikoa erabilita, edo, bestela, haren ordezkaritzan diharduen hirugarren batek, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 89. artikuluan ezarritakoaren arabera.



2. Faktura erregistroen hornidura elektronikoa egin ahal izan dadin, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Erregistro liburuaren titularra den subjektu pasiboak identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) eduki behar du, eta aurkezpena egin aurretik, Zergapekoen Erroldan egon behar du identifikatuta, hain zuzen ere zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 4. artikuluan aipatutakoan.

b) Erregistro liburuaren titularra den subjektu pasiboak ziurtagiri elektronikoa aitortu bat erabiliz egin ahal izango du fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa, betiere baldin eta ziurtagiri hori onartutakoan artean badago ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa arautzen duenak, xedatutakoaren arabera.

Hornidura elektronikoa ahalordedunek edo behar bezala baimendutako laguntzaile sozialek egiten badute, haiek eduki beharko dute ziurtagiri elektronikoa aitortua.

3. Zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez eraman behar dituzten enpresaburu edo profesionalek eta balio erantsiaren gaineko zergaren gainerako subjektu pasiboek mezu informatikoak bidaliz egin beharko dute fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa, hurrengo artikuluetan jasotako prozedura, formatua eta diseinua kontuan hartuta.

7. artikulua. Fakturazio erregistroak elektronikoki bidaltzeko prozedura.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez eramaten diren balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuaren fakturazio erregistroak modu hauetako bat erabiliz bidali ahal izango dira elektronikoki:

a) XML formatuko mezuen trukean oinarritutako web zerbitzuen bitartez. Mezu bakoitzak fakturazio erregistro kopuru maximo bat izango du igorpeneko. Kopuru maximo hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa definituko da.

b) Web formularioa erabiliz. Fakturazio erregistroak banaka bidaltzea onartuko da.

Dagoeneko, bi sistemak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa daude.

2. Fakturazio erregistroen hornidura elektronikoa egiten den une berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak erantzun mezu bat igorriko du web zerbitzuen bitartez, eta mezu horretan adieraziko du zer fakturazio erregistro onartu diren, zeintzuk onartu diren akatsekin, eta zeintzuk



errefusatu diren. Azken horien kasuan, zergatik errefusatu diren azalduko du mezuak.

Gutxienez fakturazio erregistroetako bat onartzen bada, akatsekin onartu ere, mezu informatikoaren edukian egiaztapen kode seguru bat azalduko da, eta aurkezpen data eta ordua ere adieraziko dira aurkeztu eta onartu diren fakturazio erregistroen frogagiri moduan erabiltzeko.

Artikulu honen 1.b) apartatuan aurreikusitako web formularioa erabiltzen bada, Ogasun eta Finantza Departamentuaren erantzuna banakakoa izango da erregistro bakoitzerako, eta igorpen bakoitzeko egiaztapen kode seguru bat izango da.

Fakturazio erregistroa «akatsekin onartutako» egoeran geratzen bada, beharrezko zuzenketak egin beharko dira erregistroa zuzentzeko. Fakturazio erregistroa errefusatzen bada, behar diren zuzenketak egin beharko dira, eta berriro aurkeztu beharko da erregistroa.

3. Arrazoi teknikoek eragozten badute fakturazio erregistroa internet bidez bidaltzea erregistro bakoitzerako erregelamenduz ezarrita dagoen epean, edo igorpen hori ezin bada osatu aurretik bidalitako fakturazio erregistroak ezin direlako kontsultatu, epe hori amaitu eta hurrengo lau egun naturalen barruan bidali ahal izango da fakturazio erregistroa.

8. artikulua. Mezu informatikoen formatua eta diseinua.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramaten diren erregistro liburuen fakturazio erregistroak elektronikoki bidaltzeko erabiltzen diren mezu informatikoei bat etorri behar dute foru agindu honen I. eranskinean ageri diren erregistro eremuetako edukiarekin, eta haien formatua eta diseinua egoitza elektronikoan ageri direnak izango dira.

9. artikulua. TicketBAI betebeharra betetzeko bidalitako informazioaz gain, informazio gehigarria igortzeko prozedura eta baldintzen zehaztasunak.⁵

1. Erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateko betebeharragatik, egindako fakturen erregistro liburuan adierazi behar diren eta, TicketBAI betebeharra betetz, TicketBAI fitxategietan sartzekoak ez diren informazio eremuak jasoko dira artikulu honetan aipatzen den informazio gehigarrian.

⁵ Artikulu hau 2022eko ekainaren 14ko 330/2022 Foru Aginduaren 1. artikuluko ordinal lehenaren bi apartatuak gehitu du. Aipatutako Foru Agindua TicketBAI betebeharraren mende dauden zergadunek BIHren konplimenduan aintzat hartu beharreko zehaztapenak arautu eta, salbuespen diren kasu jakin batzuetan, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk ezartzen ditu. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2022/06/17ko GAO).



2. Informazio gehigarri hori emateko, aurrenik TicketBAI betebeharra bete beharko da, zerga betebeharrak jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 36.5 artikuluko laugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera.

3. Artikulu honetan aipatzen den informazio gehigarriak eremu hauek jasoko ditu, hala badagokio:

a) Kanpoko erreferentzia.

b) Higiezinak BEZari lotuta eskualdatzeagatik jasotako zenbatekoa.

c) Legezko ordezkariaren IFZ.

d) Kontrapartearen ordezkariaren IFZ.

e) Fakturazio akordioaren erregistro zenbakia.

f) Entitate oinordetua.

g) Kupoia.

h) Eman beharreko informazioak zerikusia badu negozio-lokal baterako atxikipenik gabe errentan emandako higiezin baten datuekin, higiezinaren egoerari eta katastroko erreferentziari buruzko informazioa emango da.

4. Aurreko 1. apartatuan aipatutako informazio gehigarria bidaltzeko, bide hauetako edozein erabili ahal izango da:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zergadunaren esku propio jarriko den web formularioa.

b) XML formatuko mezuen trukean oinarritutako web zerbitzuak, web zerbitzuaren eskakizunen, prozeduraren eta artikulu honetan arautzen diren zehaztapen tekniko eta funtzionalen arabera. Mezu horietako bakoitzean fitxategi bakarra etorriko da informazio gehigarriarekin, banaka bidaliko dena eta Osatu fitxategia izendatuko dena.

5. Informazio gehigarria bidaltzen den une berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak, web zerbitzuen bidez, erantzun mezu bat bidaliko du adierazteko informazioa onartu edo errefusatu den eta, errefusatz gero, horren arrazoia zein izan den.

Informazio gehigarria onartzen bada, mezu informatikoak egiaztapen kode seguru bat ere izango du, eta, bertan, aurkezpen data eta ordua ere agertuko dira, aurkeztutako eta onartutako informazio gehigarria benetan bidali dela justifikatzeko.



Balioztapenak harrerakoak baino ez dira izango, eta modu sinkronoan egingo dira.

Informazio gehigarriak ez badu harrerako balioztapenen bat gainditzen eta horregatik atzera botatzen bada, beharrezko zuzenketak egin beharko dira eta informazioa berriro bidaliko da. Errefusatutako informazio gehigarria ez da erregistratuko Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoan.

6. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan ikusgai jarriko dira «osatu» fitxategiek gainditu behar dituzten balioztapenak, horietako bakoitzari dagozkion erroreen tipifikazioa, errore horiekin lotutako kodeak eta deskribapenak, eta fitxategien harrerarekin zer ikusia duten gainerako abisuak.

7. Rest zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten softwareak ziurtagiri elektroniko baten bidez autentifikatu beharko dira bezeroaren aldetik, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen abenduaren 23ko 521/2020 Foru Aginduaren IV. eranskineko 3.1 puntuan ezartzen den moduan.

Hala ere, gailuaren ziurtagiriaren kasuan, gailuak bere izenean mezuak bidal ditzan, beharrezkoa da 3.1 puntuan aipatutako baimena informazioa bidali aurretik ematea.

8. Artikulu honetan aipatzen den informazio gehigarria bidaltzeko erabiltzen diren mezu informatikoak foru agindu honen II. eranskinean agertzen diren erregistro eremuetara egokituko dira, eta haien egitura, formatua eta diseinua Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jasota daudenak izango dira.

Xedapen gehigarri bakarra⁶. Erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramatera behartuta geratu aurreko denbora tarteari buruz eman beharreko informazioa, derrigortasuna sortzen den ekitaldi berberari dagokiona⁷.

1. Subjektu pasiboak ekitaldiko lehen eguna ez den beste batetik aurrera geratzen badira derrigortuta balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramatera, behartuta

⁶ Xedapen gehigarri honen zenbakia 2022eko ekainaren 14ko 330/2022 Foru Aginduaren 1. artikuluko ordinal lehenaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Aginduak TicketBAI betebeharraren mende dauden zergadunek BIHren konplimentuan aintzat hartu beharreko zehaztapenak arautu eta, salbuespen diren kasu jakin batzuetan, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk ezartzen ditu. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2022/06/17ko GAO).

⁷ Xedapen gehigarri hau 2018ko ekainaren 26ko 324/2018 Foru Aginduaren artikulua bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Aginduak azaroaren 7ko 467/2017 Foru Agindua, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eramanez garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituen aldaketak aldatzen du. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2018/06/26ko GAO) eta aldaketak 2018ko urtariletik aurrerako ondorioak izango ditu.



egongo dira derrigortuta geratu aurreko denbora tarteari dagozkion fakturazio erregistroak ere bidaltzera, zeinak derrigortasuna sortzen den ekitaldi berekoak izango baitira. Aipatutako erregistroek epealdi horretan egin diren eragiketak jaso behar dituzte, eta, zehazki, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartutako zergaren Erregelamenduko 63.3, 64.4 eta 66.3 artikuluek erregelamendu bereko 62.6 artikuluan aipatutakoez besteko pertsona eta entitateentzat ezarritakoagatik balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuetan jaso behar direnak.

Informazio hori emateko garaian, identifikatu beharko da eragiketa horiek balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eramateko obligazioa izan aurreko epealdikoak direla, foru agindu honen I. eranskinean identifikazio mota horretarako ezartzen diren zehaztapen tekniko zehatzei jarraituz.

Informazio hori foru agindu honen 7. eta 8. artikuluetan aurreikusitako prozedura, formatu eta diseinuari jarraituz bidali beharko da.

Epealdi horretako fakturazio erregistroak bidaltzeko epea erregistro liburuak eramateko obligazioaren lehen egunean hasi eta obligazioa jaiotzen den ekitaldiko abenduaren 31n bukatuko da.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduak, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 65. artikuluan aipatzen duen inbertsio ondasunen erregistro liburua Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez eraman behar denean, ekitaldi osoari dagozkion idazpenak jasoko ditu.

3. Foru agindu honen 2.3 eta 3.2 artikuluetako azken paragrafoan jasotakoaren arabera urteko maiztasunez eman beharreko informazioak ekitaldi osoari dagozkion eragiketak jasoko ditu.

Azken xedapena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru aginduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- **324/2018 Foru Agindua, ekainaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 7ko 467/2017 Foru Agindua, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituen (2018/06/26ko GAO).**
 - Bere artikuluko bakarreko bat apartatuak 2. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.
 - Bere artikuluko bakarreko bi apartatuak 3. artikuluko 1. apartatua aldatzen du.
 - Bere artikuluko bakarreko bi apartatuak 3. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.
 - Bere artikuluko bakarreko hiru apartatuak bigarren xedapen gehigarria gehitzen du.
 - Bere artikuluko bakarreko lau apartatuak aginduaren I. eranskina ordeztzen du.
- **1/2021 Foru Agindua, urtarrilaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 7ko 467/2017 Foru Agindua, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituen (2021/01/13ko GAO).**
 - Bere artikuluko bakarreko bat apartatuak 3. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.
 - Bere artikuluko bakarreko bi apartatuak 4. artikuluan paragrafo bat eransten du.
 - Bere artikuluko bakarreko hiru apartatuak aginduaren I. eranskina ordeztzen du.
- **330/2022 Foru Agindua, ekainaren 14koa, TicketBAI betebeharraren mende dauden zergadunek BIHren konplimenduan aintzat hartu beharreko zehaztapenak arautu eta, salbuespen diren kasu jakin batzuetan, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beste modu berezi batzuk ezartzen ditu. (2022/06/17 ko GAO).**



- Bere 1. artikuluko ordinal lehenaren bat apartatuak «Eranskinari» eta «Eranskin» horren errubrikari egiten zaizkien erreferentziak kendu eta haien ordeztu «I. eranskina» jartzen du.
- 1. artikuluko ordinal lehenaren bi apartatuak 9. artikulua gehitzen du.
- 1. artikuluko ordinal lehenaren hiru apartatuak bigarren xedapen gehigarriaren zenbakia aldatzen du.
- 1. artikuluko ordinal bigarrenak II. eranskina gehitzen du.

⁸I. ERANSKINA

Foru Ogasunaren bidez eramandako bezaren erregistro liburuen edukiari buruzko zehaztapen teknikoak

Legenda	Gorriz=	Bete beharreko eremua
	Beltzez=	Aukerako eremua
		Hautatzeko eremua
		Berria/aldatua bertsioan

I. ALTA ETA ALDAKETA MEZUEN ERREGISTRO EREMUAK ETA ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK.

Eskuratu beharreko informazioa ondoren aipatzen diren erregistro liburuen mota bati lotuta bidaliko da edo, hala badagokio, zerga eragina duen eragiketa modura kalifikatuz gero.

1. Egindako fakturen erregistro liburua
2. Jasotako fakturen erregistro liburua
3. Inbertsio ondasunen erregistro liburua
4. Erkidegoaren barruko eragiketa zehatzen erregistro liburua
5. Erkidegoaren barruko eragiketa zehatzen erregistro liburua. Kontsignan dauden ondasunen salmenta
6. Urtean zerga eragina duten bestelako eragiketen hornidura
 - 6.1 Eragiketak eskudirutan (6.000 eurotik gorako zenbatekoak, pertsona edo erakunde beraren ekitaldian eskudirutan jaso badira)

⁸ Eranskin hau 2021eko urtarrilaren 6ko 1/2021 Foru Aginduaren artikuluko bakarreko hiru apartatuak ordeztu du. Aipatutako Foru Agindua azaroaren 7ko 467/2017 Foru Agindua, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburua Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez nola eraman garatzen duten zehaztapen tekniko eta arauemaileak ezartzen dituen aldatzen du. Foru Agindua Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2021/01/13ko GAO) eta aldatetako 2021eko urtariletik aurrerako ondorioak izango ditu.

6.2 Aseguruen eragiketak (aseguru-etxeek jasotako primak edo kontraprestazioak jakinaraziko dituzte, baita ordaindutako kalte-ordainak edo prestazioak ere, faktura egiten ez bada)

6.3 Bidaia agentziak (zerbitzuak eskaintzea, beste baten izenean eta beste baten kontura emateko bitartekariak badira, otsailaren 26ko 8/2013 FDk hirugarren xedapen gehigarriko 7.b) atalean azaldutakoaren arabera)

Ondoren, mezu informatikoetan integratutako erregistro eremu bakoitzaren deskribapena ageri da. Horietan, alta eta aldaketaren eragiketetarako Foru Ogasunaren bidez adierazitako balio erantsiaren gaineko zergari buruzko erregistro liburueta edukiak zehazten dira. Fakturei dagozkien baja eragiketen kasuan, eskaera bajetarako mezu informatiko zehatzaren bitartez egingo da. Atalburu erkidea izango du, bidalketa berean baja eman nahi zaien faktura guztien zerrendarekin batera. Faktura eta ekitaldi bakoitza nahiz faktura bakoitzaren baja denboraldia adieraziko dira:

1.Eginiko fakturen erregistro liburua

BLOKEA	DATUAK / TALDEA	DATUAK/TALDEA	DATUAK/TALDEA	DATUAK/TALDEA	DATUAK/TALDEA	DATUAK/TALDEA	DATUAK			DESKRIPZIOA	FORMATUA LUZERA ZERRENDA
Cabecera	IDVersion Sii									Informazioa trukatzeko erabiltzen den eskemaren bertsioa identifikatzea	Alfanumérico(3) L19
	Titular	NombreRazon								Eginiko fakturen erregistro liburuaren titularren izena/izen soziala	Alfanumérico(120)
		NIFRepresentante								Erregistro liburuaren titularrak duen ordezkariaren IFZ	FormatoNIF(9)
		NIF								Erregistro liburuaren titularrekin lotuta dagoen IFZ	FormatoNIF(9)
	TipoComunicacion									Eragiketa mota (alta, aldaketa)	Alfanumérico(2) L0
RegistroL Rfacturas Emitidas	PeriodoLiquidacion	Ejercicio								Ekitaldia	Número(4)
		Periodo								Likidazio aldia	Alfanumérico(2) L1
	IDFactura	IDEmisorFactura	NIF							Fakturaren igorlearekin lotuta dagoen IFZ	FormatoNIF(9)

		NumSerieFacturaEmisor							Serie eta faktura zenbakiak, egindako faktura identifikatzeko (hala badagokio, idazpen laburpenaren lehen faktura)	Alfanumérico(60)
		NumSerieFacturaEmisorResumenFin							Serie eta faktura zenbakiak, azken faktura identifikatzeko, Faktura mota fakturen idazpen laburpen bat denean	Alfanumérico(60)
		FechaExpedicionFacturaEmisor							Faktura egin zen eguna	Fecha(dd-mm-yyyy)
	FacturaExpedida	TipoFactura							Faktura mota zehaztea: faktura osoa, faktura sinplifikatua, faktura sinplifikatuaren ordezkari faktura, laburpenaren erregistroa, edo zuzentzeko faktura	Alfanumérico(2) L2 EMI
		TipoRectificativa							Eremu horren bidez adierazten da ea zuzentzeko faktura ordeztzeko den ala aldatzeko den	Alfanumérico(1) L5
		FacturasAgrupadas	IDFacturaAgrupada	NumSerieFacturaEmisor					Eginiko faktura identifikatzen duten serie eta faktura zenbakiak	Alfanumérico(60)
				FechaExpedicionFacturaEmisor					Faktura egin zen eguna	Fecha(dd-mm-yyyy)
		FacturasRectificadas	IDFacturaRectificada	NumSerieFacturaEmisor					Eginiko faktura identifikatzen duten serie eta faktura zenbakiak	Alfanumérico(60)
				FechaExpedicionFacturaEmisor					Faktura egin zen eguna	Fecha(dd-mm-yyyy)
		ImporteRectificacion	BaseRectificada						Ordezkatutako fakturaren edo fakturen oinarri ezargarria	Decimal(12,2)
			CuotaRectificada						Ordezkatutako fakturaren edo fakturen kuota jasanarazia	Decimal(12,2)

		CuotaReca rgoRectific ado							Ordezutako fakturaren edo fakturen baliokidetasun errekarguaren kuota	Decimal(12,2)
		FechaOper acion							Eragiketa egin den eguna, baldin eta faktura egin zen egun bera ez bada	Fecha(dd-mm- yyyy)
		ClaveRegim enEspecial OTrascende ncia							BEZaren erregimen mota edo zerga arloan garrantzitsua den eragiketa bat identifikatzeko gakoa	Alfanumérico(2) L3.1
		ClaveRegim enEspecial OTrascende nciaAdicion al1							BEZaren erregimen mota edo zerga arloan garrantzitsua den eragiketa bat identifikatzeko gako gehigarria	Alfanumérico(2) L3.1
		ClaveRegim enEspecial OTrascende nciaAdicion al2							Eragiketa mota edo zerga arloan garrantzitsua den erregimen berezia identifikatzeko gako gehigarria	Alfanumérico(2) L3.1
		NumRegistr oAcuerdoFa cturacion							Fakturazioaren edo erregistro liburuen alorreko baimena bidaltzean lortutako erregistro zenbakia	Alfanumérico(15)
		ImporteTota l							Fakturaren zenbateko osoa	Decimal(12,2)
		BaselImponi bleACoste							BEZaren taldeetarako	Decimal(12,2)
		Descripcion Operacion							Fakturaren xedearen deskripzioa	Alfanumérico(500)
		RefExterna							Kanpoko erreferentzia. Eduki libreko datu osagarria, "bezeroak" aplikazio batzuek bidalitakoa (kontabilitate idazpena, etab.).	Alfanumérico(60)
		FacturaSim plificadaArti culos7.2_7. 3							Faktura sinplifikatua Otsailaren 26ko 8/2013 FDren 7.2 eta 7.3 artikulua Eremu hau jakinarazten ez bada, "N balioa duela ulertuko da.	Alfanumérico(1) L26

		Entidad Suc edida	Nombre Ra zon							Berregitratze eragiketaren ondorioz oinordetutako erakundearen izena-sozietatearen izena	Alfanumérico(120)
			NIF							Berregitratze eragiketaren ondorioz oinordetutako erakundeari lotutako IFZ	Formato NIF(9)
		RegPrevioG GEEoREDE MEoCompe tencia								(GGEE)ra baldintza aldatua dagoela, (REDEME)n sartuta daudela edo ikuskapen aginpidean aldaketa ageri dela ez jakiteagatik epean bidaltzeko zailtasunak dituzten fakturazio erregistroen identifikatzailea. Eremu hau jakinarazten ez bada, balioa "N" dela ulertuko da.	Alfanumérico(1) L28
		Macrodato								100.000.000 euroko atalasearen gainetik faktura-zenbatekoa duten fakturen identifikatzailea. Eremu hau ez bada jakinarazten, balioa "N" dela ulertuko da.	Alfanumérico(1) L29
		Datos Inmue ble	Detalle Inm ueble	Situacion In mueble						Higiezinaren kokapena zehazten duen identifikadorea	Numérico(1) L6
				Referencia Catastral						Higiezinaren katastroko erreferentzia	Alfanumérico(25)
		Importe Transmision Inmuebles Sujeto AIVA								BEZaren araberrako higiezinaren eskualdaketa eragatik jasotako zenbatekoa	Decimal(12,2)
		Emitida Por Terceros O Destinatario								Faktura hirugarrenak edo hartzaileak egin al duen zehazteko identifikatzailea. Eremu hau ez bada jakinarazten, balioa "N" dela ulertuko da.	Alfanumérico(1) L10
		Facturacion Disp Adicional Segunda Y Quintay Del Mercado Organizado De I Gas								Araudiaren eskakizunarekin bat (fakturazioaren betebeharrak eta gasaren merkatu antolatua arautzen duen araudiari buruzko bigarren eta bosgarren xedapen gehigarriak) faktura hirugarren batek egin al duen zehazteko identifikatzailea.	Alfanumérico(1) L25
		Varios Destinatarios								Fakturak zenbait hartzaile ote dituen zehazten duen identifikadorea. Ezer adierazten ez bada, eremuaren balioa "N" dela ulertuko da.	Alfanumérico(1) L20

		Cupon								Identifikadore honek zehazten du ea R1, R5 edo F4 motako fakturaren oinarri ezargarria txikiagoa den kupoiak, hobariak edo deskontuak direla eta, jatorrizko faktura soilik jaulki bada. Ezer adierazten ez bada, eremuaren balioa "N" dela ulertuko da.	Alfanumérico(1) L22
		FacturaSinI dentifDestin atarioAritcul o6.1.d								Hartzailearen identifikaziorik gabeko faktura Otsailaren 26ko 8/2013 FDren 6.1.d) artikulua Eremu hau jakinarazten ez bada, "N" balioa duela ulertuko da.	Alfanumérico(1) L27
		Contraparte	NombreRa zon							Eginiko fakturen eragiketako kontrako alderdiaren (bezeroa) izena/izen soziala	Alfanumérico(120)
			NIFRepres entante							Eragiketako kontrako alderdiaren ordezkariaren IFZ	FormatoNIF(9)
			NIF							Eginiko fakturen eragiketako kontrako alderdiaren (bezeroa) IFZren identifikadorea	FormatoNIF(9)
			IDOtro	CodigoPais						Eginiko fakturen eragiketako kontrako alderdiarekin (bezeroa) lotutako herrialdearen kodea	Alfanumérico(2) (ISO 3166-1 alpha- 2codes) L17
				IDType						Egoitza herrialdean identifikazio mota finkatzeko gakoa	Alfanumérico(2) L4
				ID						Egoitza herrialdean identifikatzeko zenbakia	Alfanumérico(20)
		TipoDesglo se	DesgloseF actura	Sujeta	Exenta	DetalleExe nta	CausaEx encion			Eremuan zehazten da zergatik dagoen salbuetsita, aplikagarri den egoeretan	Alfanumérico(2) L9
						Baselmp onible				Lotuta edo salbuetsita dagoen zatiari dagokion zenbatekoa, eurotan	Decimal(12,2)
					NoExenta	TipoNoExe nta				Lotuta dagoen eta salbuetsita ez dagoen eragiketa mota, subjektu pasiboen inbertsioa bereizteko	Alfanumérico(2) L7
						DesgloseIV A	DetalleIV A	TipoImposit ivo		Oinarri ezargarriari aplikatutako ehunekoa, kuota kalkulatzeko	Decimal(3,2)

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

				Entrega	Sujeta	Exenta	DetalleExenta	CausaExencion		Eremuan zehazten da zergatik dagoen salbuetsita, aplikagarri den egoeretan	Alfanumérico(2) L9
							BaselImponible			Lotuta eta salbuetsita dagoen zatiari dagokion zenbatekoa, eurotan	Decimal(12,2)
